AIARALDEA hemen

ARTZINIEGA MUSEOA:
Ehunka herritar mobilizaztu dira gunea bizirik mantendu behar dela aldarrikatzeko 2 or.

HEZKUNTZA GEHIGARRIA:
Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan matrikulatzeko epea hastear

Generoa markatu gabe identitatea eraikiz

URDUÑAKO FAMILIA BATEN ESPERIENTZIA

IES Laudio BHI
IES LAUDIO BHI
www.laudioinstitutua.net / 946720086

DBH
BATX. GUZTIAK
LANBIDE HEZIKETA

GELA GUZTIAK
INFORMATIZATUAK

ANIZTASUNAREN
TRATAERA ZABALA

PROIEKTU ELEANITZA

JANTOKIA ETA GARRAIOA
DIRUZ LAGUNDUTA

HAUSPOA:
GOIZEZ KLASE SAIOAK
ETA ARRATSALDEZ
ERREFORTZUAK ETA
TAILERRAK

MATRIKULA EPEA:
ON-LINE:
Urtarrilaren 28tik otsailaren 7ko
24:00etara arte
IKASTETXEAN:
Urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra
bitartean

ATEAK ZABALIK EGUNA:
Urtarrilaren 30ean 18:00etan

herriz herri

Artziniega

Gauza ugari gertatu dira urte hasieran Artziniega Museoa itxi zutenetik. Artea etnografia elkarteko kideak udalarekin bildu dira, baina ez dute akordiorik erdietsi.

Bien bitartean, Museoa Bizirik plataforma jaio da eta mobilizazio jendetsua antolatu du, 300 bizilagun baino gehiagoren parte hartzearekin. Sinadura bilketa ere hasi dute.

Artziniega Museoaren aldeko aldarri anitz eta ozena plazaratu dute

Museoak itxita jarraitzen du oraindik, baina herritar asko mobilizatu dira berriz ireki behar dela aldarrikatzeko. **Joseba Vivanco eta Alberto Martinez Gutierrez-Barquin**

Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Urte hasieran erabaki zuen Artea etnografia elkarteak Artziniega Museoa ixtea, finantzaketa faltagatik. "Gida zerbitzuak 2019. urtean zenbat balioko zuen helarazi genion tokiko erakundeari eta azaldu genion abenduaren 28rako finantzaketa bermatua ez bagenuen ezingo genuela museoa ireki", azaldu zuen elkarteko kidea den Mateo Lafraguak.

Bilera

Museoa itxi eta astebetera bildu ziren Arteako eta udalgobernuko kideak. Elkartearen aldarria aurreko bilera guztietan plazaratutako berdina izan zen: Arabako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzek huts egiten badute, udalaren esku geratzea museoa irekitzeko beharrezko finantzaketa ematearen ardura. Baina Iñigo Gomez alkateak azaldu zuen ezin dela etnografia elkarteak eskatzen duena egin, "udalak ezin duelako berme-emaile gisa jardun". Gauzak hala, bileran ez zuten adostasunik erdietsi.

Mobilizazio jendetsua

Orduan, egoerari irtenbide bat bilatzeko asmoz, Museoa Bizirik plataforma eratzea erabaki zuen herritar talde batek. Mobilizazioa egin zuten iragan ostiralean, eta arrakasta handia izan zuen deialdiak. 300 pertsona baino gehiago bildu ziren udaletxe aurrean egin zen elkarretaratzean.

Askotariko eragile eta norbanakoak bildu ditu Artziniega Museoaren aldeko aldarriak. Zaraobe Institutua da horietako bat. Bertako historia departamentuak oharra helarazi dio Artziniegako Udalari, museoak bere hezkuntza programari egiten dion ekarpena azpimarratzeko. "15 urte baino gehiago daramatza museoa bisitatzeak DBH 1. mailako ikasleen ikasteko programaren ekintza finkoa izaten". Gauzak hala, museoa "eskualdeko kultura erreferente handienetako bat" da, hezkuntza zentroko kideen hitzetan. Horregatik, "birplanteaketa bat" egotea espero dute, "Artziniegako museoa berriz ireki ahal izateko".

Sinadura bilketa

Beste egitasmo bat ere jarri dute abian plataforma sortu berriko kideek: sinadurak biltzen hasi dira Change.org atariaren bidez, museoak bizi duen "egoera kritikoaren aurrean", herritarren artean "elkartasuna" eta eraikina "zabalik ikusteko nahia" sustatzeko. Ekimen honek ere jarraipen zabala izan du: mila lagun baino gehiagok sinatu dute lehen 48 ordutan.

Ehunka lagun bildu ziren iragan ostiralean eginiko mobilizazioan eta 48 ordutan 1.000 sinadura baino gehiago bildu dituzte

Mozio bateratua

PP eta EH Bilduk, euren aldetik, mozio bateratua aurkezteko asmoa adierazi dute, udalgobernuari honakoa eskatzeko: udal aurrekontuetan 78.000 euroko diru-partida erreserbatzea museoaren irekiera bermatzeko. Udal-aurrekontuen gaineko eztabaidan hori puntu garrantzitsua izango dela aurreikusi daiteke, beraz.

Artziniega Museoak itxita jarraitzen du, baina bere kudeaketaren gaineko eztabaida guztiz irekita dago, eta ez dirudi berehalakoan itxiko denik.

Urduña

Emakume bat larriki zauritu da, eraso matxista jasan eta gero

Mobilizazioa egingo dute gaur Urduñan. **Aiaraldea.eus**

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Urtarrilaren 15ean goizaldean gertatu zen eraso matxista, Urduñako etxebizitza batean. 44 urteko gizonezkoa atxilotu du Ertzaintzak, ikertzen aritu ondoren, indarkeria matxista leporatuta, baina karguekin aske utzi dute.

Hala adierazi dio Aiaraldea hedabideari poliziak. Atxilotua aske dago, genero indarkeria karguekin. "Urtarrilaren 15eko goizaldean emakume bat bota zen leihotik" zehaztu du Segurtasun Sailak.

Ertzaintza eta anbulantzia bertaratu ziren tokira, eta erietxera eraman zuten emakume zauritua. "Ez zen istripua izan, genero indarkeria baizik", baieztatu dio Ertzaintzak Aiaraldea hedabideari.

Atestatuan oinarritu dira ikerketa abiatzeko, eta 44 urteko gizonezkoa atxilotu dute, erasotuaren bikote ohia. "Justiziaren esku geratu zen kasua. Karguekin aske geratu da gizonezkoa".

Aiaraldeko Mugimendu Feministak gogor gaitzetsi du gertaera. Horrez gain, mobilizazioa egingo dute gaur arratsaldeko zazpietan. Urduñako Udalak, berriz, oharra plazaratu du. "Irmotasunez gaitzesten ditugu mota honetako erasoak", adierazi du tokiko erakundeak. Erasotuari, familiari eta gertukoei elkartasuna eta babesa helarazi dizkie. Ildo beretik, Aiaraldeko Mugimendu Feministaren mobilizazioarekin bat egin du.

Udaberrirako prest izan nahi dute Urduñako herri museoa, Kultur Etxean

Herri museoa sortzeko prozesuak aurrera darrai Urduñan. Elkartea eratuko dute museoa kudeatzeko eta udalarekin hitzarmena egitea da asmoa. Era horretan, tokiko erakundearen gain geratuko da mantenua. Kultura Etxean kokatuko dute museoa, eta udaberriarako prest egotea gustatuko litzaieke.

Abenduaren 20an izan zen aurreneko bilera, 17 kide elkartu ziren. Bertan aurkeztu zituzten Urduñako diagnostikoa eta proiektuaren helburuak. Urtarrilaren 10ean egin zuten bigarrena, eta bertan aurkeztu zuten elkartearen estatutuen zirriborroa.

"Urduña erreferente historiko bat da kultura, monumentu eta paisaiagatik; baina era berean gabezia handiak daude guzti hori balioan jartzeko", azpimarratu dute.

Lehen bildumak osatzen

Dagoeneko hasi dira aurreneko bildumak pilatzen, Murias zapatarien tresneria edota Basabe aulkitegiko makinaria kasu. Hala ere, bestelako langintzak ere bildu nahi dituzte. Dena den, proiektua mamitu ahala emango dituzte xehetasunak.

Inbertsioetarako diru gehiago izango du udalak aurten, 4.699.951 euroko aurrekontuarekin

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Urte hasieran onartu zituzten Urduñako udal aurrekontuak, EH Bilduren aldeko botoekin eta EAJren abstentzioarekin. 4.699.951,48 euro baliatuko ditu tokiko erakundeak aurten, iaz baino 207.542 euro gehiago. Bizkaiko Foru Aldundiak zergabilketan diru gehiago bildu duelako egon da igoera hori.

Ohiko gastuei aurre egiteaz gain, hainbat inbertsio eta proiekturi ere helduko die udalak aipatutako aurrekontuarekin. Adierazi dutenez, Lan eta Zerbitzuen Sailaren aurrekontuak 147.390 euroko igoera izango du aurten, 514.200 eurokoa izango baita. Hainbat lan egiteko erabiliko dute diru hori: bide publikoen inbentarioa, bideen konponketa, harresiaren argiztatzea, futbol zelaiko hobekuntzak, irisgarritasun planaren berrikuspena, auzoetako mantenu lanak, ibilgailuak kargatzeko argindar puntu bat instalatzea eta hiri-altzariak erostea, besteak beste.

Gasteiz errepidean ere egingo dituzte lanak. 180.000 euro bideratuko dituzte bidea urbanizatzeko. Obraren helburua izango da gune hori "oinezkoentzat zein ibilgailuentzat" erosoagoa bihurtzea.

Horrez gain, 77.644,57 euro baliatuko dituzte Margondo eta Santa Cristinako pistak konpontzeko, iazko euriteengatik oso kaltetuak geratu baitziren. Hala ere, diruaren gehiengoa -%90- Aldundiak jarriko du. Los Milanoseko zabortegia ere berreskuratuko dute, Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza bat baliatuta.

Elkarteentzako diru gehiago

Udalak nabarmendu du handitu egingo dituztela kirol eta kultura elkarteentzako dirulaguntzak. Horrez gain, 2.000 euro gehiago bideratuko dituzte euskararen normalizaziora.

Gizarte ongizateari dagokionez, etxez etxeko laguntza zerbitzura bideratzen duen diru partida -216.000 eurokoa- mantenduko du tokiko erakundeak. Gainera, "Mugi zaitez!" egitasmoa indartuko dute, 15.000 euro gehiagorekin. Programa berri bat ere abiatuko dute, "Zainduz" izenekoa.

Berdintasunean ere igoera nabarmena gauzatuko dute. Iaz baino 6.500 euro gehiago izango ditu sail horrek (%22ko igoera).

Igo egingo dituzte baita formazio eta enplegu dinamizaziora bideratutako partidak, eta Lehenego Sektorera eta Behargintza zerbitzura zuzendutako diru-poltsak mantenduko dituzte.

JAR EZAZU ZURE IRAGARKIA hemen

Komunikazio kanpaina bat martxan jarri nahi duzu?
Zure produktu, zerbitzu edo ekitaldiak iragarri nahi dituzu?

idatzi publizitatea@aiaraldea.eus helbidera
edo deitu 688 625 394 zenbakira

Eskualdean zabalpen handiena duen komunikabidea

2 astean behin 10.000 ale banatzen dira Aiaraldea osoan
(Amurrio, Atziniega, Urduña, Laudio, Okondo, Aiara, Orozko, Arrankudiaga-Zollo eta Arakaldo)

herriz herri

Laudio

Lau greba egun gehiago deitu dituzte Aiala Vidrion

Urtarrilaren 9an egin zituzten lehen lanuzteak Aiala Vidrion. **Aiaraldea.eus**

Testua
Aitor Aspuru Saez

Lanuzteak egiteari ekin diote berriro Aiala Vidrioko langileek. Igandean -urtarrilak 20- egin zuten lehena, eta grebara joko dute berriz hilaren 27an eta otsailaren 3an eta 10ean. 32 orduko lanuzteak izango dira eta gaueko, goizeko, arratsaldeko eta berriro gaueko txandei eragingo diete.

"Guretzat bi marra gorri daude bereziki: soldata eskala bikoitzarena antzinatasunean eta lanordu kopuruarena, eta zuzendaritzak ez dio ez batari ez besteari heldu nahi izan", azaldu du ELA sindikatuko Urtzi Etxebarria Oruetak. LAB erakundeko bozeramaileak gaineratu du zuzendaritzarekin batu zirela langile ordezkariak urtarrilaren 10ean eta enpresako jabeek guztiz baztertu zituztela beharginen aldarrikapenak, bakarra onartu gabe.

Hori aurreikusita, langileek mobilizazio egutegia prestatu zuten, batzar orokorrean adostuta, eta indarrean jarri dute hitzarmen berria erdiesteko.

Iragan urtarrilaren 9an egin zuten lehen lanuztea, eta ekoizpena erabat gelditzea lortu zuten beharginek. Datozen egunetan egingo dituzten protestak ildo beretik joango dira, eta zuzendaritza negoziazio mahaian esertzea izango dute helburu.

Bost pertsona kontratatuko dituzte enplegu programa berriaren bidez

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Enplegu programa berria jarriko du abian Laudioko Udalak, Arabako Foru Aldundiaren dirulaguntza baliatuta.

Plana egiteko ardura hartzen duen enpresak bost pertsona kontratatu beharko ditu gutxienez. Mendi publikoetan hainbat lan egitea izango da langile horien helburua.

77.298 euroko aurrekontua -BEZ gabe- baliatuko dute enplegu plana garatzeko. Udalaren asmoa da langileak urtarrila amaierarako lanean egotea. Lan deialdia hemendik bi astera aterako da eta interesdunek Lanbiden eman behar dute izena.

Udaberrian

Hori ez da izango udalak abian jarriko duen azken enplegu plana, Iñigo Martinez Cerrillo zinegotziak aurreratu duenez. Ibaia garbitzeko lan-deialdia egingo dute udaberrian, udalaren baliabide propioak erabilita.

Zinegotziak nabarmendu du bi egitasmo berri horiekin 7 direla enplegua sustatzeko udalak martxan dituen proiektuak.

Abian berriz Antzokiko proiektuaren erredakzioaren lehiaketa

Abenduaren bukaeran abiatu zuen berriro Laudioko Udalak Antzokiaren proiektua erredaktatzeko lehiaketa. Izan ere, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoak helegitea aurkeztu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoak aintzat hartzeko eta horrek arrazoia eman dio zenbait puntutan.

Onartutako alegazio horiekin aurrera egingo du lehiaketak eta eskaintzak otsailaren 26an egin beharko dira, beranduenez. Hiru finalistek proiektuen maketak aurkeztu beharko dituzte.

Langabetuen lan poltsa eratuko du udalak hauteskundeei begira

Laudioko Udalak lan-poltsa osatuko du 2019an egingo diren udal hauteskundeetan Administrazioaren ordezkari gisa aritu daitezen hauteslekuetan. Lau baldintza bete beharko dira horretarako: langabezian egotea, Laudion erroldatua egotea, Batxilergo, LH II edo titulu baliokidea izatea eta Euskarazko C1 maila edo baliokidea izatea.

Otsailaren 19ra arte dago eskaerak aurkezteko epea. Interesdunek udaletxean entregatu beharko dute dokumentazioa. Otsailaren 21ean ebatziko da zeintzuk izango diren lanean arituko diren pertsonak, zozketa bidez. Udalak nabarmendu du hauteskunde egunean Administrazioaren ordezkari izateak ez duela esan nahi tokiko erakundearekin inolako lan harremanik egongo denik. Egun horietan lanean daudenek legez ezarritako diru-kopurua baino ez dute jasoko.

Bulego berria irekiko du Aldundiak Nerbioi kalean

322,09 metro koadroko lonja erosiko du Arabako Foru Aldundiak Laudioko Nerbioi kalean egiten ari diren eraikin berrian, 600.000 euroren truke. Erakundearen asmoa da bulego berria udaberrian irekitzea. Komunikabideek jakinarazi dutenez, eraikinaren bi aldeetatik egongo da sartzeko aukera.

Aldundiak adierazi duenez, Herriko plazako bulegoak lonja berrira mugituko dituzte. Zerbitzu berriak eskainiko dituzte bertan, orain arte eskaini dituztenekin batera. "Diziplina anitzeko arretagunea" atontzea da erakundearen asmoa.

Aiara

Osasun zentroaren irisgarritasuna hobetuko dute Arespalditzan

Hainbat egokitzapen egingo ditu Aiarako Udalak Arespalditzako osasun zentroaren inguruan, gunea irisgarriagoa egiteko helburuarekin.

Alde batetik, modu malkartsuan zatituta dagoen espaloi zati bat luzatuko dute. Kontsulta dagoen eraikineko fatxadaren albotik joango da espaloi hori, aparkaleku kopurua handitzeko espazioa libre utzita. Hori da obren bidez egingo duten beste gauza bat: aparkatzeko zonalde berri bat egokitzea. Horrez gain, "ezgaitasunen bat duten pertsonentzako eta anbulantziarako aparkaleku bana" eraiki nahi dituzte, udalak jakinarazi duenez.

34.981,61 euro baliatuko dituzte lanak gauzatzeko. Arabako Foru Aldundiaren Obra Txikien diru-laguntzen deialdira aurkezteko asmoa du udalak, finantzaketa lortzeko xedearekin. Onartuko balute, 2019an egikaritu beharko lukete.

San Babilas jaiak ospatuko dituzte bihartik igandera

Olabezarren ere egitaraua prestatu dute San Babilas jaien harira. Urtarrilaren 24an, ostegunean, txupinazoa jaurtiko dute 10:00etan eta 12:00etan meza eta luntxa izango dira trikitiaren doinuak lagunduta. 13:30ean zozketaren txanda izango da eta 17:00etan briska txapelketa abiatuko dute.

Larunbatean patata tortilla txapelketa izango da ekintza nagusia, 17:00etan. Igandean, aldiz, mus txapelketak jokalariak erakarriko ditu 21:00etan, ospakizuna suziriekin amaitzeko.

Okondo

Talka LABen eta Okondoko Udalaren artean, udal-langileen biltegia dela eta

Talka egon da Okondoko Udalaren eta Aiaraldeko LABen artean. Sindikatu horrek salaketa jarri zuen lan ikuskaritzan, udal-langileen biltegiaren egoera zela eta. "Udal langileek jo zuten gugana, komunik eta aldagelarik ez zutelako", azaldu du sindikatuko kidea Jose Prietok.

Lan ikuskaritzako kideak tokira bertaratu ziren eta azpiegiturek ordena gehiago izan behar zutela ondorioztatu zuten. LABek Aiaraldea hedabideari adierazi dio ikuskaritzak hiru hilabeteko epea eman ziola tokiko erakundeari egoera bideratzeko.

Udalaren adierazpenak

Okondoko Udalak gogor erantzun dio LABi. Udal gobernuko kideek adierazi dute langileek ez dietela inoiz aldagelen beharra plazaratu.

Era berean, tokiko erakundearekin bildu ez izana leporatu diote sindikatuari, eta nabarmendu dute lan ikuskaritzak ez zuela mota horretako azpiegituren beharra ikusi biltegia bisitatu zuenean.

Gauzak hala, udal gobernuko kideek uste dute gertatutakoa "Okondo Aurreraren aurkako eraso partidista eta interesatua" dela eta "EH Bilduren aginduak jarraituta" egin dela, "udal gobernu taldea eta herriko bizilagunak kaltetzeko helburu bakarrarekin, langileen onurei begiratu gabe".

Lezama

Lezamako baserriko tiroketagatik atxilotutako polizia nazional ohia, bermerik gabe aske

Leihotik sartu zen bala etxeko sukaldera. **Aiaraldea.eus**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Lezaman iragan urtarrilaren 6an Ezker Abertzaleko familia baten baserriaren aurka jazotako tiroketa ikertzen ari da Ertzaintza. 9 milimetroko bala bat sartu zen etxeko sukaldera, leihoa hautsita, barruan familiako hainbat kide zeudela.

Urtarrilaren 10ean atxilotu zuten erasoaren ustezko egilea: herrian bizi den 74 urteko polizia nazional erretiratua. Baldintzapean aske utzi zuten egun bet geroago, bermerik gabe.

Hedabideek zabaldutako informazioaren arabera, polizia nazional ohiak tiro egin zuenean bere txakurrarekin paseoan zebilen baserritik 400 metrora.

Epaiketa, instrukzio fasean

Ertzaintzak 30 arma inguru topatu zituen gizonaren etxea erregistratu zuenean, baita hainbat munizio ere. Hedabideek zabaldu dute epaileak legez kanpoko armak eta munizioa izatea egotzi diola atxilotuari, baina ez duela atentatu edo hilketa bat egitearen asmorik sumatu, oraindik epaiketa instrukzio fasean dagoen arren.

Erasoaren izaera politikoa azpimarratu dute hainbat eragile eta norbanakok. Amurrion elkarretaratze eta mobilizazio jendetsuak egin ziren erasoa jazo eta bi egunera, kasua zigorgabe geratu ezin zela aldarrikatzeko.

Erasotuek ez dute adierazpenik egin atxiloketari buruz. Horren ordez, bestelako mezua zabaldu nahi izan dute: "Familia gisa eskertu nahi dugu eraso honen aurrean mobilizatu izan den jende guztia, jasotako elkartasun olatua eta animo mezu guztiak".

Atzeratu egingo dira geltokiko obrak, lehiaketa berriz egingo dutelako

Atzeratu egingo dira Amurrioko geltokiko obrak, Adifen eta lehiaketa irabazi zuen enpresaren arteko desadostasunengatik. Lanen kostuaren zenbatekoak eragin du eztabaida. Ez da adostasunik lortu bi aldeen artean eta horregatik lehiaketara aterako dute berriro obra, bigarren aldiz. Hala ere, ez dute zehaztu noiz abiaraziko duten prozedura berria.

Extraco Construccions e Proxectos enpresa galiziarrari esleitu zioten obra. Hasierako aurrekontua 1,7 milioikoa zen, baina enpresak prezioa 1,07 milioira jaitsi zuen. Lurazpitik joango litzatekeen igarobide bat eraikitzea eta geltokiko zenbait azpiegitura hobetzea da obren xedea.

Latiorroko zubia, eraistear

Laudioko Udalak, bere aldetik, bost enpresen eskaintzak jaso ditu Latiorroko zubia botatzeko. Tokiko erakundeak jakinarazi du lan hori gauez egingo dela, tren zerbitzua ahal bezain gutxien kaltetzeko. 105.000 euro bideratuko dituzte horretara. Kontratatutako enpresak 15 eguneko epea izango du lanak egiteko,behin esleipena eginda.

herriz herri

Aiaraldea

Markixana eta Basaurbeko araztegien proiektua kolokan dago berriz

Hiru isurketa jazo dira hilabete honetan Nerbioi ibaian. **Javi Saez**

Testua
Aitor Aspuru Saez

Duela hilabete batzuk erakundeek zabaldu zuten aurten Markixana eta Basaurbeko araztegien lanak abiatzeko kontratazioa egingo zutela. Zehazki, EAJk eta PPk aurrekontuak adostu eta gero, Ingurumen Ministerioak zabaldu zuen 2019an beteko zela prozedura.

Orain, ordea, mezuek kontrako norabidea hartu dute. Alde batetik, Espainiako Gobernuko ordezkariek adierazi dute 2019ko aurrekontuen oniritziaren menpe daudela obrak. Hain zuzen, Trantsizio Ekologikorako Ministroak aipatu zuen abenduan egindako agerpenean 12 edo 15 hilabete atzeratuko direla. Hau da, 2020an esleituko lirateke lanak.

Bestalde, eskualdeko zenbait udal ordezkarik ere azaldu dute gaiaren harira izandako azken bileran URA Agentziako Zuzendari Nagusi Ernesto Martinez de Cabredok aitortu zuela PSOEren Gobernuak prozedura moteldu duela.

Gauzak horrela, eskualdeko hainbat herrik behar duten funtsezko azpiegiturak egikaritu gabe jarraitzen du eta, bitartean, ura araztu gabe heltzen ari da Nerbioi ibaira.

Espainiako Gobernuko ordezkariek adierazi dute 2019ko aurrekontuen oniritziaren menpe daudela obrak

EH Bilduk proposatu du Eusko Jaurlaritzak bere gain hartzea obrak, subsidiarioki

Azken bi asteetan hiru isurketa gertatu dira Nerbioi ibaian, gutxienez

EH Bilduren proposamena

EH Bilduk proposamen bat helarazi dio Eusko Jaurlaritzari: erakundeak obrak bere gain hartzea, subsidiarioki, eta ondoren Kupoaren beherapenaren bitartez berreskuratzea lanak egiteko jarritako dirua. "AHTa bezalako proiektuak gauzatzeko ez da horrelakoak egiteko arazorik egon, eta uste dugu proiektu honek garrantzi handiagoa duela", nabarmendu du Jon Ander Altubek.

Laudioko alkateordeak adierazi duenez, mozioa aurkeztuko dute udalbatzan proposamena plazaratzeko, EH Bilduren izenean. Aiaran eta Amurrion ere erregistratu dituzte mozioak.

Modu horretan, "egungo blokeoa gainditu" nahi du koalizioak. Salatu dutenez, "lanek hiru hamarkadako atzerapena dute eta 45.400 bat biztanleri eragiten diete, araztu gabeko ura botatzen dutelako Nerbioi ibaira.

Isurketak

Araztegien proiektuen atzerapenari gehitu behar zaio azken astean Nerbioi ibaian jazo diren isurketak. Urtarrilaren 7an gertatu zen lehena, putzu septiko batean dagoen arrakala baten ondorioz.

Hilaren 15ean gertatu zen bigarren isurketa, herri berean. URA agentzia enpresa bat ikertzen ari da gertaera horregatik. Iragan larunbat eguerdian jazo zen azkenekoa, Aretan.

Jarraipen txikia izaten ari da greba eskualdeko itunpeko ikastetxeetan

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Ostiralean amaituko da gizarte ekimeneko itunpeko ikastetxeetan deitutako greba. Eragin handia ari da izaten lanuztea EAEn. Sindikatuen arabera, langileen %65ak egin du bat deialdiarekin.

Aiaraldean, aldiz, txikiagoa izaten ari da jarraipena. Amurrioko Virgen Niña ikastetxean langileen %18ak egin du bat lanuzteekin. Urduñako Andra Mari ikastetxean bi behargin batu dira sindikatuen deialdira. Laudioko La Milagrosan, aldiz, ez da inor batu grebara.

Lanuztea egitearen arrazoi nagusia da ikastetxeetako langileek 2009tik daramatela hitzarmena berritu gabe. "Zer dakar horrek? Gure soldatak izoztuta geratu direla eta erosmenahalmenari begira %10eko galera izan dugula", azaldu du ELA sindikatuko Igor Velascok. Hala ere, bestelako aldarrikapenak ere jarri dituzte mahai gainean. "Enpleguari eustea" da horietako bat.

"Bost puntutan finkatzen ditugu gure aldarrikapen nagusiak", aipatu du LAB sindikatuko Ane Landetak, "soldatak, egonkortasuna (kaleratzerik ez), kontratazioetan gardentasuna, prekarioan dauden langileen (0-3 zikloko hezitzaileak eta Heziketa Bereziko Hezitzaileak) lan baldintzetan hobekuntzak egitea eta irakasleen lan karga gutxitzea".

40 Minutu Rock jaialdira joateko autobusak antolatu dituzte

Landako gunean egingo da jaialdia. **Gaizka Peñafiel**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Datorren otsailaren 23an Durangon egingo den 40 Minutu Rock musika jaialdira joateko autobusak antolatu dituzte Urduñako, Orozkoko, Aretako, Amurrioko eta Laudioko gazte asanbladek.

Jakinarazi dutenez, bi bus atonduko dituzte. "Lehena Aretatik aterako da 9:30ean, Orozko eta Laudioko jendea batuta", zehaztu dute. Autobus horren txartelak Laudioko Gaztetxean edo aretakogazteasanblada@gmail.com helbide elektronikora mezu bat bidalita eskuratu ahalko dira, 9 euroren truke.

Bigarren autobusa Urduñatik aterako da ordu berean eta Amurrioko jendea jasoko du. Txokogorrin eta Mugalden lortu ahalko dira tiketak, prezio berean.

Bi autobusak goizeko hiruretan itzuliko dira eskualdera. Otsailaren 15a izango da txartelak erosteko azken eguna.

Aiaraldea

Bi aldiz igaroko da Korrika Aiaraldetik, herri gehienak bisitatzeko

Urteetako jendetsuena izan zen 20. Korrika eskualdean. **Aiaraldea.eus**

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Apirilaren 4tik 14ra 2.560 kilometro egingo ditu Korrikak euskararen alde Euskal Herrian barrena. Aiaraldetik bi egunetan pasatuko da: apirilaren 10ean eta 11n. Aurreneko bisitan Urduña, Amurrio, Arespalditza, Laudio eta Arrankudiaga igaroko ditu; apirilaren 10ean, hain zuzen. Biharamunean Enkarterritatik itzuliko da eskualdera, Artziniega eta Aiara zeharkatzeko. 21. Korrikak ez ditu Orozko eta Okondo zapalduko.

Ordutegiak herrika

1335-1401. kilometroak osatuko dituzte aiaraldearrek. Asteazken goizaldetik -05:39tik- hasita, zazpi ordu eta erdiko bidea aurreikusi dute. Izan ere, 9:25ean agurtuko dute arrankudiagarrek euskararen aldeko ekimena.

Herrika

URDUÑA: Apirilaren 10ean, 05:39an, Izarrako bidetik (Barrerillatik) hasita.

AMURRIO: Apirilaren 10ean, 06:11n, Urduñatik etorrita.

ARESPALDITZA: Apirilaren 10ean, 7:10ean, Amurriotik igota.

LAUDIO: Apirilaren 10ean, 8:17an, Luiaondotik pasata.

ARAKALDO: Apirilaren 10ean, 9:12an, Areta atzean utzita.

ARRANKUDIAGA: Apirilaren 10ean, 9:25ean, Arakaldori lekukoa emanda.

ARTZINIEGA: Apirilaren 11n, 8:57an, Aiarako mugak igarota (8:18an iritsiko da Balmasedatik Korrika).

ASIER AMONDO
KORRIKAREN KOORDINATZAILEA

Gero eta gutxiago falta da apirilaren 4a heldu eta Garesen 21. KORRIKA has dadin. 2560 Km, 11 gau eta egun, 6 herrialde eta euskal planeta dantzan jarriko dugu!

Tartean, eta Gasteiza heldu aurretik, Aiaraldean bitan sartuko da 21. KORRIKA. Lehen aldian, Urduña eta Arrankudiagako tartea egingo du, Arespalditzatik pasatuta. Eta bigarrenean, Balmaseda eta Gordexolako tartean Artziniega izango du pasaleku.

Gure eskualdeak euskara hautatuko du KLIKA! egingo du Laudiok, Amurriok, Urduñak, Artziniegak, Okondok, Arrankudiagak, Orozkok... (Orozkok neurri batean KLIKA egin du dagoeneko, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen barnean sartu eta euskaraz funtzionatuko duela ebatzi baitu).

Urratsa bada, baina oraindik nahikoa ez, gure inguruko herrietan ematen den errealitatea oso bertsua baita. Ezagutzan urratsak egin bai, baina erabileran ez da jauzi handirik izan. Arlo horretan, EUSKARALDIA bezalako ariketek balio handia dute, identifikazioa eta ekimen baten partaide sentitzea garrantzitsua izan baita guztiontzat. Orain nahi duguna da azaro-abenduko ahobizi eta belarriprestek KLIKA egin dezaten, eta gure eskualdeko herrietan aktiba daitezela berriro ere.

Balia ditzagun EUSKARALDIAren eta 21. KORRIKAren olatuak! Gure Aiaraldeko EUSKAL PLANETA DANTZAN, KORRIKA jar dezagun eta apirilaren 10 eta 11n altxa ezkerreko besoa! Klika! Antenak ditugu piztuta! Egin dezagun Klika! TTIPI-TTAPA TTIPI-TTAPA GURE ERRITMORA!

Pisu berria buruko gaixotasunak dituzten pertsonentzako

Arabako Foru Aldundiak jakinarazi du pisu berria irekiko duela aurten Aiaraldean buru gaixotasunak dituzten pertsonentzako, 175.000 euro baliatuta. Etxebizitzak sei pertsonentzako tokia izango du eta urte erdi barru egongo da martxan.

Horrez gain, Bizkaiko Aldundiarekin negoziatuko dute, Urduñako, Orozkoko, Arakaldoko eta Arrankudiaga-Zolloko herritarrek ere izan dezaten Arabako baliabideez gozatzeko aukera. Asasam elkarteko kideak pozik azaldu dira albistearekin. Gaur egun hiru pertsonentzako espazioa duen pisua kudeatzen dute elkarteko kideek, eta sinadura bilketa abiatu zuten iaz Aldundiari baliabide gehiago eskatzeko, "etxebizitza zerbitzu duina" eskaini ahal izateko. Arrakasta nabarmena izan zuen ekimenak, 3.766 sinadura bildu baitzituzten guztira.

Akordioa Tubacex eta Midhaniren artean, Indiako energia sektorea bultzatzeko

"Asmoen akordioa" sinatu du Tubacex enpresak Indiako Mishra Dhatu Nigam Limited (Midhani) enpresarekin, herrialde horretako hazkunde energetikorako plana garatzeko.

Midhanik altzairu bereziak ekoizten ditu. Gauzak hala, sektore energetikorako materialen ekoizpen eta garapena ahalbidetuko luke bi konpainien arteko itunak, eta Tubacexek Indian duen posizioa hobetuko luke, Jesus Esmorisen hitzetan. "Badirudi India munduko liderra bilakatu daitekeela energia nuklearraren ekoizpenean", nabarmendu du Tubacexeko kontseilari delegatuak.

Bi enpresek sinatu duten akordioaren arabera, Indian elkarrekin aritzeko aukerak aztertuko dituzte. Multinazionalak hainbat azpiegitura ditu Indian: lantegia, bulego komertziala eta biltegia.

LAN ESKAINTZA

AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEAK KUDEATZAILE BERRIA BEHAR DU

Lan-eskaintzaren informazio xehea:
https://labur.eus/aiaraldeakudeatzailea2019

IZEN EMATEA: Interesa duten pertsonek, curriculuma eta aurkezpen gutuna bidali beharko dute
lanpoltsa@aiaraldea.eus
helbidera,urtarrilak 28 baino lehenago.

AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEA

elkarrizketa

“Argazkilari familia bateko laugarren belaunaldia naiz ni”

GENEETAN DU **JOSE JU**
(Laudio, 1954) IRUDIAR
FAMILIA BATEN LAUGARR
ASKOKO ESKARMENTUA

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Argazkilari familia bateko kidea izanda, irudiarekiko zaletasuna gaztetatik izango zenuen.

Nire aitak estudioko eta laborategiko lanak egiten zituen bereziki, eta baita ezkontzak ere. Nik ez nuen ezkontzetan argazkiak ateratzea bat ere gogoko (barreak). El Correon hasi nintzen lanean zuzenean, nahiko berandu, 30 urte inguru nituela. Hala ere, 14 urterekin argitaratu nuen nire lehenbiziko argazkia egunkari horretan, entzierro batena zen, oker ez banago.

Nire lehen argazki garrantzitsuak Aceros de Llodio enpresako gatazkaren testuinguruan egin nituen. Hori baino lehen jaietako argazkiak publikatu nituen batez ere. Bazegoen bat asko zabaldu zena, El Correoko azala izan zen. Laudioko Jaietan Herri Batasunako zinegotzi batek arrautzakada jaso zuen, eta nik unea harrapatu nuen. Hala ere, argi zegoen arrautza garai hartan alkate zenari -Toño Aiz- bideratua zegoela.

Urte batzuk beranduago egunkariko kideek Gasteizera lan egiteko gonbita luzatu zidaten. Nire aita ere egon zen El Correon lanean, jaietako gehigarriak egiten, gehienbat. Beste garai batzuk ziren bereak: orduak igaro behar zituen laborategian kalean ateratako argazkiak prozesatzen, eta oso erritmo azkarrean burutu behar zuen prozesua. Ez zuen denbora asko, lau seme-alaba baitzituen. Horregatik pasa zen kaleko argazkiak egitetik ezkontzen argazkiak egitera, diruak agintzen zuelako.

Ama ere berarekin lan egiten hasi zen, argazkiei ukituak ematen. Ona zen lan hori egiten. Ni hortik ibiltzen nintzen, bueltaka.

Argazkiak txuri beltzean ziren hasieran. Koloreko argazkiak egitea sekulako kalapita zen. Makina batzuk baliatu behar zenituen koloreen tenperaturak kalkulatzeko, eta probak egin. Aitak ordu asko igaro behar zituen laborategian, eta asko kostatzen zitzaion, baina ondo moldatzen zen.

Belaunaldiz belaunaldi transmititu da argazkilaritza zure familian.

Hala da. Nire aitaren gurasoak argazkilariak ziren eta bere aitona ere. Nire amonaren aita argazkilaria zen, eta nire aitona bere bidez batu zen ofiziora. Uste dut ni laugarren edo bosgarren belaunaldia naizela. Nire aitaren aitona Frantzian egon zen, lehenbiziko argazkilarietatik ikasten.

Zure familia argazkilaritzaren hastapenetatik egon da mundu horretan sartuta, beraz.

Ez dakit, agian gehiegi esatea da, baina bertan egon

LIAN MONTES MONTEROk

EKIKO PASIOA. ARGAZKILARI
REN BELAUDIA DA, ETA URTE
DU FOTOKAZETARI GISA.

“Nire aitaren gurasoak argazkilariak ziren eta bere aitona ere”

ginela esan daiteke. Nire oinordekoek eguzkiaren argia baliatzen zuten argazkia errebelatzeko. Torrelavegakoak ziren, eta karreta batean aritzen ziren gora eta behera. Nire aita ere Espainiar estatuko hainbat txokotan aritu zen postalak egiten, pertsona batek kontratatuta.

Zure aitak denda bat ere ireki zuen.

Don Feliciano Chasco apaizaren ideia izan zen hori. Berak utzi zigun lonja. Aitak gogoko zuen herrian ateratako argazkiak erakusleihoan jartzea.

“Nire lehen argazki garrantzitsuak Aceros de Llodio enpresako gatazkaren testuinguruan egin nituen”

Argazkilaritza digitaleranzko saltoa bete-betean bizi izan duzu.

Nire aitak ez zuen argazkilaritza digitala ezagutu, nik bai, ordea. Kamara digitala erosi behar izan nuen, dirutza jarrita. Aurrerapausoa ekarri zuen digitalizazioak, baina lehen kamarak oso oinarrizkoak ziren, itxaron egin behar zenuen argazkia ikusteko, eta ez zeneukan itxaroteko denborarik (barreak).

Gasteizen prentsaurrekoetako eta kaleko argazkiak egiten nituen. Iristeko zailak ziren tokietara igo behar nintzen batzuetan. Milurteko berriaren hasierarekin hasi nintzen hirian lanean eta duela sei urtera arte egon naiz. Bertan egoteak argazkilari asko ezagutzeko parada eman zidan, eta harrera beroa egin zidaten. Argazkilaritzaren ikuspuntu berria garatu nuen bertan.

Laudioren historiaren zati handi bat bizi izan duzu argazkilaritzaren bidez.

Nire koinatuak -Pedro Egiluz- eta nire arrebak -Lola Montes- liburu bat plazaratu zuten aitaren argazkiekin, *Llodio, imágenes para la memoria* izenekoa. Laudioko antzinako argazki asko agertzen dira bertan. Inpaktu handia eragin zuen argitalpen hark Laudion.

Zu zertan zabiltza orain?

Bideoa da gehien egiten ari naizena. Proiektu bat dut esku artean. Glitch Artists Colective izeneko Facebook orrian argitaratzen ditut lanak. Gasteizen argazki erakusketaren bat egin izan dut, eta badut bideoekin ere zerbait egiteko asmoa.

Zure aitaren garaian gutxi batzuek zuten argazkiak egiteko aukera. Gaur egun, aldiz, irudiaren munduan bizi garela esan daiteke.

Bai, horrek baditu alde ona eta txarrak. Gazteei erakutsi behar zaie argazkilaritza ona izan daitekeela, eta horretan indarra jarri.

Argazkilaritzaren haspanetetatik

Jose Julian Montes Monteroren birraitona Parisera joan zen lehen argazkilarien eskutik ikastera.

Argazkilari familia baten laugarren belaunaldia da Jose Julian Montes Montero. Bere birraitonak -Claudio Gomez- Parisen ikasi zuen ofizioa, argazkilaritzaren hastapenetan. Espainiara itzuli zenean Kantabriara joan zen. Bere alaba Jose Montes Ruizekin ezkondu zen, Montes Monteroren aitona izango zena. Lau semealaba izan zituzten. Jose Montes Gomez izan zen jaiotzen lehena, eta berak hartu zuen argazkilari ofizioaren lekukoa. 1943. urtean Bizkaira joan zen bizitzera, eta bost urte beranduago mugitu zen Laudiora.

Estudioa eta denda Laudion

Laudion atondu zuen Montes Gomezek bere lehen argazkilaritza estudioa. Geroago denda ireki zuen Virgen del Carmen kalean. Ezkontzak eta estudioko lanak egiten zituen, baina denbora asko igaro zuen herriko kaleetan barrena, kamara eskuan. Eskualdeak XX. mendean izan zuen bilakaera islatu zuen bere lanetan. Bere emaztea, Maria Dolores Montero, izan zuen bidelagun lan horretan.

Kontaezin ahala argazki egin zituen bere bizitzan zehar. Horietako asko Laudioko zein beste toki batzuetako artxiboetan barreiaturik daude. Montes Gomezen lanaren bilduma osatuena *Llodio, imágenes para la memoria* liburuan topatu daiteke. Bere alabak (Lola Montes, Jose Julian Montesen arreba) atondu zuen argitalpen hori, Pedro Eguiluzekin batera. Argazkilariak 50 urtetan zehar eginiko 201 irudi bildu zituzten bertan.

Goiko argazkiko pertsona da Montes Gomez. Urquijo markesak egin zion erretratu hori, 1952. urtean.

AIARALDEA GAUR

agenda

2019/01/23
2019/02/06

Goizetik gauera arte luzatuko da San Blas jaia

Giro ederra egongo da otsailaren 2an Laudion, San Blas jaia ospatuko baita. Goizetik gauera arte luzatuko da festa, eta Aldai plaza izango du epizentro, bertan egingo baitira ekintza gehienak.

Goizeko hamarretan hasiko da feria. Makina bat jarduera egingo dituzte bertan: urritz makilen lehiaketa, Fita Fiken emanaldia, txerriaren erreketa eta garbiketa, euskal dantzen erakustaldia, Arloteen kantaldia... 13:15ean egingo zaie omenaldia herriko baserritarrei. Aurten Mª Begoña Unzaga eta Mari Sol Respaldiza izango dira omenduak, Andiko eta Ostenko baserrietakoak, hurrenez hurren.

Arratsaldean dantza emanaldia eta erromeria egongo dira, besteak beste. Terentzio txerriaren pisatzearekin emango zaio amaiera jaiari.

"Gorrino gaua" Gaztetxean

Hala ere, gaua luzatzeko aukera egongo da gaztetxean, Aretako Gazte Asanbladak "Gorrino gaua" antolatuko baitu. 21:00etan afaria egingo dute eta 23:00etan kontzertuak hasiko dira Patx&Run, Hilean Bariku Bat eta DJ's Potirekin.

Hezkuntza jardunaldien XIX. edizioa, aste honetan

Egizu

Astelehenean -urtarrilak 21- hasi zen Hezkuntza Jardunaldi Irekien XIX. edizioa, Aresketa Ikastolaren eskutik. Ostiralean amaituko dira, bost hitzaldiz osatutako egitaraua eskainita.

Gaur-urtarrilak 23- Victor Moreno idazleak hartuko du hitza. Irakurtzeko motiboak nola eman erakutsiko die bertaratzen direnei. Pello Añorga irakasle eta ipuin kontalariak, aldiz, irakurzaletasuna pizteko gakoak eskainiko ditu bihar.

Pello Biain izango da hitza hartzen azkena, ostiralean. "Kritikoki eta autokritikoki" pentsatzera bultzatzeko tailer irekia eskainiko du irakasleak.

Eñaut Elorrietaren proiektu berria Amurrion

Emanaldia eskainiko du Eñaut Elorrietak datorren urtarrilaren 26an Amurrio Antzokian. Ken7 taldeko abeslaria Kaabestri String Ensemble hari boskotearekin batu da eta *Harian* izeneko ikuskizun berezia osatu du. Euskadiko Orkestra Sinfonikoko bost musikarik osatzen dute aipatutako talde hori: bi biolin, biola, txeloa eta kontrabaxua.

Arratsaldeko zortzietan hasiko da kontzertua eta 80 minutuko iraupena izango du. Sarrerek 12 euro balioko dute, baina antzokiko bazkideek 8 euroren truke eskuratu ahalko dituzte.

Greba feministako egitaraua aurkeztuko dute

Martxoaren 8ko greba feministari begira antolatzeari ekin dio Aiaraldeko mugimendu feministak. Hainbat bilera egin dituzte dagoeneko, eta datorren otsailaren 2an aurkeztuko dute planteamendua, Laudioko Lamuza Parkeko Kasinoan, goizeko hamaiketan.

MUSIKA

01.26
Larunbata
20:00 AMURRIO
EÑAUT ELORRIETA & KAABESTRI STRING ENSEMBLE
Sarrera: 12 euro (10 bazkideeentzat)
Amurrio Antzokia

01.27
Igandea
19:00 LAUDIO
URTE BERRIKO KONTZERTUA
San Pedro eliza

02.01
Ostirala
22:30 AMURRIO
SUMISION CITY BLUES
Prezioa: 8 euro
Burubio Kultur Elkartea

02.09
Larunbata
21:00 LAUDIO
MIKEL URDANGARIN ETA IGOR ARZUAGA
Prezioa: 3 euro
Kasinoa

KIROLA

01.27
Igandea
9:30 URDUÑA
ORIENTAZIO PROBA
Foru plaza

02.03
Igandea
11:00 LAUDIO
LAUDIOKO XII. HERRI KROSA
Aldai plaza

02.09
Larunbata
15:15 LAUDIO
LAUDIOKO KLASIKOAREN XI. EDIZIOA
Zumalakarregi etorbidea

ANTZERKIA

02.02
Larunbata
20:00 AMURRIO
"TENDRIAMOS QUE HABER EMPEZADO DE OTRA MANERA"
Prezioa: 8 euro (bazkideentzat 6 euro)
Amurrio Antzokia

01.28
Astelehena
17:00 URDUÑA
"KONTUAN IZAN BEHARREKO ASPEKTU SOZIOEKONOMIKO ETA LEGALAK"
Jubilatuen etxea

01.30
Asteazkena
16:45 LAUDIO
"MASKULINITATE BERRIAK"
Kultura Etxea

01.30
Asteazkena
18:30 AMURRIO
AMURRIOKO UDALAK INDIAN EGITEN DUEN LANARI BURUZKO HITZALDIA
Katekesi aretoa

01.30
Asteazkena
19:00 AMURRIO
GENERO INDARKERIAREN BIKTIMA BAT EZAGUTUZ GERO EGIN BEHAR DENARI BURUZKO HITZALDIA
Kultura Etxea

01.31
Osteguna
18:00 AMURRIO
EL TIBESTI, LA DEPRESIÓN DANAKIL ETA YELLOWSTONE: PLANETAKO HIRU GUNE OSO BEROETARA BIDAIA
Nagusien etxea

02.08
Ostirala
16:00 OKONDO
"EZ NAIZ FEMINISTA, ALA BAI?"
Kultura Etxea

UMEENTZAKO JARDUERAK

01.26
Larunbata
17:30 LAUDIO
SORGIN ZAPATUAK "Kimikarin"
Zubiko Etxea

02.09
Larunbata
17:30 LAUDIO
SORGIN ZAPATUA
Disko-festa eta txapak egiteko eskulan saioa
La Milagrosa

BESTEAK

Hitzaldia Juan Jose Ibarretxeren eskutik, ostiralean

Hitzaldia eskainiko du Juan Jose Ibarretxek Arrankudiagan datorren ostiralean, urtarrilak 25. Udaletxeko areto nagusian izango da zita, 19:00etan. Ramon Azkue kultur elkarteak antolatu du solasaldia. *Kultura da gakoa. Euskadi en el mundo* izango da hitzaldia izenburua.

Kartelera

LAUDIOALDE ARETOA

Cold war

URTARRILAK 26

LARUNBATA
(3 euro)

17:30 / 20:00



DONIBANE ARETOA

El regreso de Mary Poppins

URTARRILAK 27

IGANDEA (3,5 euro haurrek eta 4,5 euro helduek)

16:30

AMURRIO ANTZOKIA

Kika Superbruja

URTARRILAK 27

IGANDEA (3,75 euro)

17:30

DONIBANE ARETOA

Tiempo después

URTARRILAK 27

IGANDEA (3,5 euro haurrek eta 4,5 euro helduek)

19:00

AMURRIO ANTZOKIA

Dantza

URTARRILAK 27, 28

IGANDEA ETA ASTELEHENA
(5 / 3,75 euro)

19:30 / 20:00

LAUDIOALDE ARETOA

Un asunto de familia

OTSAILAK 2

LARUNBATA
(3 euro)

17:30 / 20:00

LAUDIOALDE ARETOA

El vicio del poder

OTSAILAK 9

LARUNBATA
(3 euro)

17:30 / 20:00

Zinema eskaintza guztia eta pelikulen trailerrak Aiaraldea.eus atarian ikusgai

TAILERRAK

01.25
Ostirala
17:00 ARESPALDITZA
EMAKUMEA ETA UMOREA
Bi eguneko ikastaroa
Emakumeen gela

02.02
Larunbata
10:00 AMURRIO
AUTODEFENTSA TAILERRA
Kultura Etxea

HITZALDIAK

01.25
Ostirala
19:00 AMURRIO
"SAPERE AUDE! AUSARTU ZAITEZ ZURE KABUZ PENTSATZEN!"
Katekesi aretoa

01.25
Ostirala
19:00 ARRANKUDIAGA
"KULTURA DA GAKOA"
Juan Jose Ibarretxeren hitzaldia
Udaletxeko areto nagusian

01.26
Larunbata
11:00 LAUDIO
"ADINGABEEN HARRERA BIKARTEREKIN"
Kultura Etxea

01.28
Astelehena
17:00 URDUÑA
ORIENTAZIO HITZALDIA GAZTE ETA FAMILIENTZAT
Urtarrilaren 20ra arte egongo da izena emateko aukera, Alondegian.
Alondegia

BESTEAK

01.26
Larunbata
URDUÑA
GAZTETXE EGUNA
13:00 // Poteo musikatua
15:30 // Bazkaria
18:00 // Koadrilen arteko jolasak
22:30 // Kontzertuak: Izate Faltsua eta Akerbeltz
Gaztetxea

01.29
Asteartea
19:00 ARETA
HERRI BATZARRA
Kultura Etxearen funtzionamendu berrirako proposamena
Kultura Etxea

01.29
Asteartea
9:45-13:15 AMURRIO
ODOLA EMATEKO AUTOBUSA
Zaraobe Institutua

02.01
Ostirala
11:00-13:00 LAUDIO
TERENCIO XI. TXERRIAREN AURKEZPENA
Herriko plaza

02.01
Ostirala
18:00 URDUÑA
GREBA FEMINISTA PRESTATZEKO ASANBLADA IREKIA
Alondegia

02.02
Larunbata
LAUDIO
SAN BLAS FERIA
Egun osoko egitaraua
Aldai plaza

02.02
Larunbata
LAUDIO
GORRINO GAUA
21:00 // Herri afaria
23:00 // Kontzertuak: Patx&Run, Hilean Bariku Bat eta DJ's Poti
Gaztetxea

INFO +
aiaraldea.eus

Kultura

“Forbesen ilustrazio-sorta argitaratzeko ia ez nuen lorik egin”

INES LARESGOITI (Laudio, 1987) 18 URTEREKIN JOAN ZEN HERRITIK KANPORA IKASTERA ETA LANAK MEXIKORA ERAMAN DU. HAN LURRIKARA BAT SUFRITU ZUEN URRIAN, BAINA ALDI BEREAN FORBES ALDIZKARIAN ILUSTRAZIOAK ARGITARATU DITU ETA ARTEAREN MUNDUAN BURU BELARRI SARTU DA.

Testua eta argazkia
Aitor Aspuru Saez

Zergatik joan zinen Laudiotik?

Madrilera jo nuen ingeniaritza aeronautikoa ikastera eta gero San Franciscora joan nintzen 6 hilabetez, ingelesa ikasi nahi nuen eta. Orain Mexikon bizi naiz, inbertsio funtsa batean egiten baitut lan. Eraikin bat egiten ari naiz une hauetan, higiezinen esparruan baitago sartuta funtsa. *Project Managerra* naiz eta, gehienbat, arrisku analisiak egiten ditut. Diseinua eta eraikuntza ere kontrolatzen ditut, inbertsioak...

Edonola ere, zuk marraztea duzu gogoko, ezta?

Bai, nik marraztea maite dut biziki. Bizitza osoan marraztu dut eta duela pare bat urte hasi nintzen nire lanak partekatzen. Egia esanda, ez dut oso ondo marrazten, baina estilo propioa daukat eta jendeak atsegin du.

Horrela hasi nintzen eta orain marka bat sortu dut: @Elle.Panique. Kamisetak eta fanzineak egiten ditut eta Mexiko DFko denda batean saltzen ditut. Bi fanzine plazaratu ditut jadanik.

Zein da orain arte egin duzun lanik garrantzitsuena?

Egin nuen ilustrazio lan bat www.buzzfeed.com webgunerako. Oso atari famatua da. New Yorken dudan lagun batek deitu ninduen horretarako duela pare bat urte. Tinder-ari buruzko ilustrazio sorta izan zen. Idazleak testuak bidali zizkidan eta nik marrazkiak sortu nituen.

Bestalde, Mikel Anton laudioarra nire lehengusua da eta publizitatearen esparruan egiten du lan. Bere lagun bat publizitate buru garrantzitsua da Mexikon eta gogoko ditu nire marrazkiak. Berak eman zion nire izena Forbes aldizkariko kide bati eta nirekin harremanetan jarri ziren urrian. Hori bai, asteartean deitu ninduten eta 12 orrialde betetzeko marrazkiak eskatu zizkidaten aste bakarreko epearekin. Lanean nengoen aldi berean. Hortaz, aste horretan ia ez nuen lorik egin, gauez marrazten bainuen.

Bi ordu gehienez lo egin nuen egunero, baina oso harro sentitu nintzen aldizkaria ikusi nuenean. Elle.Panique bezala sinatu nuen, ez baitut gogoko laneko jendeak jakitea ilustratzailea naizela. Nire lanpostua Mexikon oso serioa da eta ez dut nahi nagusiak ikustea marrazten dudala.

Esan duzu lan oso serioa duzula eta marraztea gogoko duzula. Ingeniaritza lana utziko zenuke ilustrazioan bakarrik aritzeko?

Paradisua litzateke ilustratzaile lanei esker bizitzea. Mexikon bi inbertsio-funtsetan egin dut lan, baina 9 hilabetez langabezian egon nintzen. Tarte horretan ilustrazioan buru-belarri sartu nintzen: kamisetak, marrazkiak, eskaerak... Baina horietako enkargu pilo -ezkontza gonbidapenak, adibidez- ez nituen batere gogoko.

Nire estiloa daukat eta nahiago dut nire gaiei buruz marraztea -nire traumak, esaterako-. Eskaerak egiten dizkidatenean pozik lan egiten dut, baina ez da gauza bera. Ospetsua bilakatuko banintz eta nik marraztu nahi dudana salduko banu, ederto. Edonola ere, ez dut uste hori gertatuko denik. Oso gogorra da mundu hau.

Aipatu duzu zure traumei buruz marrazten duzula. Zeintzuk dira zure gai kuttunenak?

Beti dira emakumeak biluzik, besarkadak... gorrotu dut “Mr Wonderful” filosofia. Ni kontrakoa naiz, desamodioari buruzko marrazkiak dira, oro har. Nostalgia eta iluntasuna islatzen dut.

Gaia erabat aldatuta, une oso kritikoak bizi izan dituzu atzerrian, ezta?

Mexikon lurra beti dago dardarka eta hango jendea ohituta dago, baina kanpokook ez. 2018ko urriaren 19an izan zen. Oso bitxia izan zen, 1985ean sekulako lurrikara egon zenez simulakroak egiten ditugu, eta horietako baten ostean gertatu zen lurrikara.

Berez, simulakroa 12:00etan bukatu zen eta 13:20ak aldera jazo zen mugimendua. Jende guztia zegoen besarkatuta mahai azpian, otoi egiten, sabaia apurtu eta erortzen hasi zen. Nik ez dut inoiz sentitu hiltzear nengoela, egun hori heldu arte. Pentsatu nuen: “Mexikon hiltzen ari naiz”.

20 segundo iraun zuen, dena lasai zegoen eta bat-batean eraikina mugitzen hasi zen. Lurrean nengoen eta leihotik ikusten nituen gauzak erortzen, dena hasi zen kraskatzen nire inguruan.

Oso gogorra izan zen, baina mexikarrak harrigarriak dira. Denak kalera atera ziren laguntzeko, hunkitu egin nintzen.

Hedabideek askotan Mexikoko bortizkeria baino ez dute islatzen, nolakoa da han bizitzea?

Mexiko DFk 20 milioi biztanle ditu eta hona etortzen naizen bakoitzean jendeak esaten dit oso leku arriskutsua dela, baina nik ez dut inoiz arazorik izan. Beste leku batean egingo ez zenuen ezer egiten ez baduzu, ez dago arazorik.

kultura

Salgai daude maiatzaren 18an egingo den OrozkoRock jaialdiko sarrerak

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Liher taldeak joko du jaialdian, besteak beste. **Liher**

Salgai daude OrozkoRock jaialdiaren lehen edizioko sarrerak. Ondorengo taberna eta guneetan eskuratu daitezke: Amurrioko Txokogorrin, Arrigorriagako Sorgiñen, Igorreko Axularren, Laudioko Ilargin, Orozkoko Jentilzulon eta Urduñako Mugalden.

Internet bidez eskuratzeko aukera ere dago. Sarrerek 15 euro balioko dute aurretik erosiz gero eta 18 euro leihatilan eskuratuta.

Zortzi talde igoko dira Orozkoko oholtzara maiatzaren 18an. Momentuz talde bakarra jakinarazi dute antolatzaileek: Liher. Datozen asteetan emango dute informazio gehiago. Abenduan aurkeztu zuten OrozkoRock elkartea eta izen bereko ekimena herriko hainbat bizilagunek.

BABESTUTAKO EDUKIA

“Gradu Duala oso aukera ona da bai esperientzia geureganatzeko eta baita lan mundu erreala ezagutzeko ere”

ENDIKA VALLE HORTELANO LAUDIOKOA DA ETA INDUSTRIA DISEINUKO ETA PRODUKTU GARAPENEKO INGENIARITZA GRADU DUALEKO 4.MAILA IKASTEN ARI DA MONDRAGON ESKOLA POLITEKNIKOKO ARRASATEKO CAMPUSEAN.

Nola balioetsiko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Nire esperientzia graduan erabat positiboa izan da hasieratik. Hasteko, teoria eta proiektuen antolaketa nabarmenduko nuke.

Sei hilabetean zehar jasotako ezagutza guztia proiektu erreal baten lantzea eta talde bakoitza bere kabuz jardutea eta antolatzea erabat aproposa da, bai ikasteko, bai etorkizunari begira.

Baita proiektuen aurkezpenak ere, oro har asko lantzen da publiko aurreko jarduna. Lan taldea asko sustatzen da, gaur egun enpresetan askotan ikusten diren diziplina anitzeko taldeak antzeko.

Lanean ari zara ikasten duzuen bitartean, Dual ereduan. Non ari zara jardunean eta zer lan mota egiten duzun?

Gradu Amaierako Lana Veltium enpresan egiten ari naiz, kotxe elektrikoentzako kargadoreen inguruko zerbitzu digitalak garatzen, eta baita produktuentzako gehigarriak garatzen ere.

Zer nolako ekarpena egiten dizu eredu dualak?

Formazio duala oso aukera ona da bai esperientzia geureganatzeko eta baita lan munduak suposatzen duen errealitatea ezagutzeko ere.

Orokorrean, gradua amaitzerako, lan mundu profesionalerako prest amaitzen duzu. Teoria oinarri on batekin, baina baita praktika eta know how askorekin.

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

www.mondragon.edu

“Harresiak Urduñako historia argitzen du”

AITOR GONZALEZ GATO (Portugalete, 1973) HISTORIALARIA DA. *LA MURALLA DE LA CIUDAD DE ORDUÑA* LIBURUA PLAZARATU BERRI DU.

Testua
Aitor Aspuru Saez

Zertaz dihardu idatzi duzun azken liburua?

Urduñako harresiaren historiaren inguruko azterketa sakona da: horren jatorria, zein materialekin egina dagoen, garapena, konponketak, eraisketak... 400 orriko 100 aleko argitalpen mugatu batean laburbildua. Liburuak dozena bat plano eta grabatu, antzinakoak eta garaikideak, eta koloretako ia 80 argazki biltzen ditu.

Zergatik piztu zuen zure interesa Urduñako harresiak?

Haren hondarrak probintziako ikusgarrienak dira; horrelako hondakin handiek, hain nabarmenek, istorioren bat ezkutatu behar zuten; eta pentsatu nuen istorio hori urduñarrei erakutsia izan zitekeela eta izan behar zela. Finean, Jaurerriko Hiri bakarraren historia ezin da bere harresia gabe ulertu.

Orain arte argitara gabeko datuak bildu dituzu, zein motatakoak?

Horrela da, bai. Hiriaren inguruan asko idatzi bada ere, beti agertzen dira argitara atera gabeko datuak, pixka bat ikertuz gero. Nire liburuan, adibidez, ez dut arreta soilik harresian jartzen, baita desagertutako gazteluan ere. 1523an desagertu zen gotorlekua, zeinaren hondakinen arrastoa XIX. mendera arte jarraitu dudan.

Argitaratu gabeko daturen bat azpimarratu beharko banu, harresiaren antzinako ateen gainean zeuden otoiztegi edo kapera txikien inguruan aurkitu dudan guztia azaltzen dudala esango nuke.

Ate horien eraisketa prozesua ere nabarmenduko nuke, egungo bibliografian gutxi dokumentatutakoa.

Zer erakutsi dizu harresiak hiriari eta bere historiari buruz?

Hasiera batean uste litekeena baino askoz gehiago. Harresiak, berez, Urduñako historia osoa argitzen du: jatorria, zergatik dituen alde zaharrak 11 kale eta ez beste kopuru bat, hirigune historikoak zergatik duen morfologia hori eta ez beste bat, Urduña zergatik izan zen Independentzia gerren eta karlistaden operazioen gertaleku nagusia... Urduña den bezalako da, orain dela ia 800 urte sortutako harresiagatik.

Aurretik ere idatzi dituzu beste harresi batzuei buruzko liburuak. Zer azpimarratuko zenuke Urduñakoaren inguruan?

Lehenago esan dudan bezala, ezeren gainetik bere hondakin handien ikusgarritasuna, Andra Mari elizaren iparraldean daudenena batez ere.

Era berean nabarmendu behar da harresiaren inguruan dagoen informazio andana, imajinatzen nuena baino handiagoa. Aipatu ditudan artxibategietan edo beste batzuetan ikertzen jarraituz gero, baliteke nik idatzi dudanaren tamainako beste liburu bat egin ahal izatea. Hala ere, uste dut oinarrizko informazioa nire lanean agertzen dela.

Kultura

HISTORIAREN ISTORIOAK

Aiaraldeko euskararen historia

IV. Atala: Noiz galdu zen euskara Amurrion?

AKETZA MERINO
Historialaria

F. Barrenengoa amurrioarraren ustez, euskarak Lehenengo Karlistadarekin batera egin zuen atzera Amurrion, bi testigantza kontuan hartuta. Lehenik, Juan Mateo Zabala fraideak gutun batean esan zuenez, 1820ko apirilean Baranbio eta Amurrio inguruan ibili zen eskualdeko euskararen ezaugarriak ikertzen. Gainera, Barrenengoak berak, Jesus Galindez eta Jose Madinabeitiari jarraituz, Losako Merindadeko alkateak Amurriokoari bidalitako gutun bat aipatu zuen, zeinetan Losakoek Salbadako herri-larreetako hurrengo batzarrera gaztelania zekiten ordezkariak bidaltzeko eskatu zuten, aurreko batzarrean ezin izan zutelako elkar ulertu amurrioarrek eta Losakoek.

Oso arraroa iruditzen zaigu amurrioarrek euskaldun elebakarrak izendatu izana erdaldunekin harremanak izateko, Aiaraldean gaztelania inoiz baino hedatuago zegoenean. Gainera, aurreko mendeetan ez zen inoiz horrelakorik gertatu bi komunitateen artean, edo, behintzat, frogarik oraindik ez dugu aurkitu.

Madinabeitia izan zen dokumentu hori jaso zuena, eta besteek hark esandakoa errepikatu baino ez zuten egin; gainera, inork ez du datarik edo dokumentua aurkitzeko erreferentziarik ematen. Beraz, zalantzan jartzen dugu lekukotasun hori, balizko dokumentu originala aurkitu arte, behinik behin.

Gure aldetik, bi testigantza berri aurkitu ditugu. 1766an Amurrion jaio zen Francisco Acebal Aguirrek ez zekien euskara, beraz posiblea zen herrian gaztelaniaz hazi eta bizitzea. Beste aldetik, 1828an Amurrioko mandazain batzuek liskar bat izan zuten Arrankudiaga aldean. Gero, Arrigorriagako ostatu batean gelditu ziren eta, ostalariak esan zuenez, gaztelaniaz hitz egiten zuten haien artean. Gaur egun gertatzen den bezala, agian baten batek ez zekien euskara eta horregatik gaztelaniaz hitz egiten zuten baina argi dago amurrioar haiek gaztelania zekitela eta hizkuntza hori erabiltzen zutela haien artean mintzatzeko.

Beraz, honek esan nahi du euskara ez zekitela? Ez dago zergatik. Bakarrik mandazain baten izena daukagu: Fernando Aguirre Sautu, "Godoy", Mendixur dorrearen ondoan jaio zen 1771. urtean eta hantxe bizi zen orduan Maria Josefa Echeguren Zulueta emaztearekin. Amurrioar peto-petoa, agian euskara bere ama hizkuntza izan zen. Bere biloba Francisca Arana, Lezaman jaioa 1847an, euskalduna zen. Baina garrantzitsuena da, ikusi dugunez, Amurrioko gizonen artean gaztelania zela hizkuntza ohikoa.

Ez dakigu zehatz-mehatz Amurrion euskara noiz galdu zen. Baina bere historia eta kokapena kontuan hartuta, seguru asko gaztelania oso hedatua izango zen Lehenengo Karlistada baino lehenago. Gure ustez, Aiaran elebitasuna eta hizkuntzen elkarbizitza uste izan dugun baino ohikoagoa izan zen; are gehiago Amurrion, Errege Bidean kokatuta.

Velascok 1879an argitaratu zuen liburuan, 1857ko datuak erabiltzen, Amurrion 100 euskaldun zeudela adierazi zuen, biztanleen % 8,33. Duvoisin kapitainak eta Bonaparte printzeak ez zuten Amurrio aipatu ere egin haien lanetan, nahiz eta A. Kanpionek oraindik euskaldunak geratzen zirela esan zuen 1884an. Barrenengoak 1951n Bergantza eta Onsoño auzoetan herriko azken euskaldunak bizi zirela idatzi zuen baina, nahiz eta Amurrio izan, Baranbiotik gertu daude –parrokia honen parte ziren, hain zuzen ere– . Beraz, bi auzo horietako euskara Baranbiokoa da eta horrekin batera galdu zen.

Argi dago Larrinben eta Lezaman baino lehen galdu zela euskara Amurrion. 1920an Bilbon bizi ziren amurrioarren %16 ziren euskaldunak. Kontuan hartu beharreko zifra. Edozein modutan ere, euskaldun horien identitatea aztertuz gero, adin guztietako euskaldunak zirela ikusten dugu; beraz, ez dugu uste datuetan hizkuntzaren galera islatzen denik, kasu isolatuak baizik.

Bildutako datu horien arabera, Amurrioko 100 pertsona zeuden Bilbon bizitzen 1920. urtean. Horietatik 18k zekiten euskara eta 80k ez. Horrez gain, lau kasu ez fidagarri zeuden: etxe berean apopilo zeuden jornalariak ziren, etxeko guztiak euskaldun gisa sailkatu zituzten eta gainera haien datuak ez daude osorik. Bestalde, Amurrioko beste euskaldun gehienak ez ziren bertakoak, euskaldun batekin ezkonduta zeuden edo familia euskaldunetan zerbitzatzen zuten. Beraz, euskara ez zen haien lehen hizkuntza izango, ez eta herrian bertan ikasitakoa ere.

1856an jaiotako gizon baten kasua da ezaugarri horiek ez zituen bakarra: Álvaro Alday Ugarte zen bere izena. Baina bere euskalduntasunaren gora-beherak ez du ezer aldatzen: kasu isolatuak –eta interpretatzeko zailak– baino ez dira. Amurrioko euskara desagertuta zegoen.

Kirola

Padelaren sareak harrapatuta

Laudioko Udalak iaz jarri zituen martxan bi pista, eta %85ekoa da okupazioa. **Aiaraldea.eus**

Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**

Zer du padelak horrenbeste jende erakartzeko? Asko dira eskualdean padela praktikatzen duten kirolariak. Laudioko Udalak iaz jarri zituen martxan bi pista, eta %85ekoa da okupazioa. Gardeako azpiegituretan elkartzen dira Okondo, Aiara, Amurrio eta Laudioko zaleak, besteak beste. "Padel kirolak ez du jolasteko adinik. Berdin du generoak eta egoera fisikoak. Erraza da partidu mistoak ikustea, adin eta baldintza guztietakoak. Zalantzarik gabe, hau da bere arrakastaren zergatia", dio Janire Fernandez laudioarrak.

Orain arte, Laudioko Isasi urbanizazioan eta Artziniegako Garabilla nekazal etxean soilik praktika zitekeen padela, instalazio pribatuetan, hain zuzen. Hori dela eta, Arrigorriagara, Ugaora edota Bilbo inguruetara jotzen zuten aiaraldearrek. Herritar talde batek sinadura bilketa hasi zuen orduan Laudioko Udalari zelaia atontzea eskatzeko. Tokiko erakundeak bi zelai egokitu zituen Gardeako tenis pistaren aldamenean. Amurrioko Udalak Bañueta kiroldegiko lizitazio prozesuan erantsi du eskakizuna, eta etorkizunean bertan ere egongo dira pistak.

Mexikotik Aiaraldera

Berez, Mexikon du jatorria padelak. 1969an sortu zuen Enrique Corcuerak bere etxean 20x10 metroko eremuari paretak jarrita, landareek bere pista ez inbaditzeko. "Paddle-Tenis" izendatu zuen ekintza, eta egurrezko palekin aritzen ziren. 1974an eratu zen kirola ofizialki, Alfonso de Hohenlohek Mexikora egindako bisitan. Hain zuzen, Corcuerarekin elkartu zen haren etxean, eta kirola gustatuta, xehetasunak zein arauak zehaztu zituzten. Hala, Marbellan -Espainia- eraiki zituzten aurreneko pistak.

Aiaraldean klubik ez badago ere, Euskal Herrian bada Padel Federazioa. Laudioko Tenis Klubeko Andoni Agirretxek azaldu duenez, badute heltzeko asmoa: "Laudio Tenis Kluba, Euskal Herriko beste hainbat bezala, integrala da; hau da, tenis zein padel klaseak emateko aukera dugu. Horretarako, irakasle titulatuak ditugu. Gaur egun, klaseak emateko eskaera formal bat egin diogu udaletxeari, eta saioak 17:00ak aurretik emateko aukera eman digu. Izan ere, oso handia da zelaia erabiltzeko arratsaldeetan dagoen eskaera kopurua".

Egun, Gardeako kiroldegian -Laudio- soilik dago pista publikoa.

Denbora gutxian jarraitzaile kopuru handia lortu du padelak Aiaraldean. Laudioko pisten okupazioa %85ekoa da. Amurrioko kiroldegian ere egokituko du zelaia bertako udalak.

"Instalazioak ireki zirenetik padel zaleak hazi eta hazi doaz. Gaur egun oso zaila da pista erreserbatzea, dena betea baitago", erantsi du Fernandezek. 10 eguneko aurreikuspenarekin eskatu liteke pista. "Interesgarria litzateke udaletxeak pista kopurua handitzea aztertzea. Euskal Herriko Federazioaren datuak oinarri hartuta, etengabe hedatzen ari den kirola da. Horrela, hainbat mailatako klaseak eskaini ahal izango lirateke".

Eskualdeko torneoak

Bien bitartean, lagun arteko txapelketak prestatzeari ekin diote. Azaroan, esaterako, lehen torneo mistoa antolatu zuten Gardean. "Oso esperientzia polita eta dibertigarria izan zen", Fernandezen aburuz. 32 lagunek hartu zuten parte: "Bi taldetan banatu genituen, multzo bakoitzetik liga osatu genuen, eta puntu gehien lortu zituztenek jokatu zituzten finalerdiak eta finala". Fernandezen esanetan, harremanak sendotzea eta padeleko lagunak egitea izan ziren helburuak. Koro Allendek jolastu zuen bertan, besteak beste: "Lehiaketa baino gehiago, padelean biltzen garenak jokatzeko aitzakia izan zen, kirola praktikatzen duen jendea ezagutzeko. Antolakuntza oso ona izan zen, espero dut horrelako gehiago egotea".

Aitarengandik jaso zuen Allendek padelerako ohitura, gazteago zela berarekin jolasten baitzuen: "Duela 2 urte hasi nintzen serioago. Hasieran Arrigorriagako pistetara joaten nintzen lagun batzuekin, eta orain Gardean aritzen naiz". Egunotan, Aiaraldeko emakumeen padel liga prestatzen ari da, beste kide batzuekin batera.

Aiaraldeko emakumeen liga

"Emakumeen ligaxka antolatzen ari gara. Alde batetik, kirolean interesa duten emakumeak padelean jolastera animatzeko eta, bestetik, kirol munduan gabiltzan emakumeoi ikusgaitasuna emateko", aipatu du.

Izandako harrerarekin pozik daude, "momentuz eskualdeko 32 emakumek eman dute izena, adin guztietakoak". Hori dela eta, ligak zenbait hilabete irautea aurreikusi dute. "Finala jolasteko egun bat egongo da", aurreratu du antolatzaileak. Finalerdiak eta finala martxoaren 23an jokatuko dituzte. Izena emateko, berriz, urtarrilaren 26an izango da hitzordua, 12:00etatik 13:00etara Gardeako kirolgunean. Gastuak finantzatzeko 10 euro ordaindu beharko ditu partaide bakoitzak.

Kirola

ESKIA

Eskiatzeko 5 irteera antolatu dituzte mendi taldeek datozen asteetarako

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Aiaraldear ugarik dute eskiatzera joateko ohitura. **Xabi Zalbide**

Aiaraldeko mendi taldeek ekin diote neguko kirolen eskaintzari. Eskiatzera joateko aukera ugari egongo dira datozen asteetan eskualdean. Berbalagunek, Mendiko Lagunakek, Elur taldeak eta Matxinkortak iragarri dituzte txangoak dagoeneko.

Mendiko Lagunak Amurrioko taldeak Alto Campoora joko du otsailaren 9an, "kranpoien inguruko ikastaroa egiteko". Otsailaren 23an eta 24an, berriz, Candanchura hurbilduko dira, alpinismo eta mendiko eski ikastaroak jasotzera. "Neguko zeharkaldia martxoaren 9an egingo dugu Castro Valneran", aurreratu dute.

Elur taldea, Berbalagunak...

Amurrioko Elur taldeak, bestalde, urtarrilean gauzatuko du urteko lehenbiziko irteera. Peyragudeseko estaziora joko dute hilaren 25etik 27ra.

Ohi bezala, Amurrioko Telefonicatik aterako da autobusa, eta Bilbon jasoko ditu gainontzeko partaideak. 144 euroren truke bidaia, 2 eguneko aterpetxea eta forfaita edukiko dute. "Bazkidea ez bazara 5€ gehitu behar zaizkio prezioari, eta federatuta ez bazaude 15€". Abenduan Cerlerren izan ziren amurrioarrak.

Aiaraldeko Berbalagunek, aldiz, otsailaren 16a aukeratu dute Valdezcarayra bertaratzeko. Iaz ere egin zuten irteera, "Gurasolagun" dinamikaren baitan. Eskualdeko ibilaldia izaki, autobusak hainbat herritan jasoko ditu partaideak. 7:30ean abiatuko dira, eta 19:00etarako aurreikusi dute itzulera.

"Iaz disfrutatu genuen beste egiteko asmoa dugu aurten ere. Valdezcarayko eski pistetara joango gara. Autobusa eta hastapen ikastaroa doan izango da, eta alokairua zein forfaita erabiltzaileen kontu", zehaztu dute. Alabaina, ezinbestekoa izango da 4 urte baino gehiago izatea. Izena emateko azken eguna urtarrilaren 31 izango da, plaza kopurua mugatua baita. 607673744 zenbakian eman beharko da izena, edota aiaraldea@aek.eus helbidean.

Asteburu berdina aukeratu dute Matxinkorta taldekoek arrankudiagarrak eskiatzera gerturatzeko. Formigal eta Panticosa artean ibiliko dira. Autobusa eta Forfaita eskainiko dute 140 euroren truke, bazkideek eta umeek 130€ ordaindu beharko dituzte.

Prezioaren barnean bidaia, aterpetxea, afaria eta gosaria daude. Otsailaren 16an aterako da autobusa Arrankudiagatik 5:30ean, eta igande iluntzean itzuliko dira herrira. Izena emateko matxinkorta@gmail.com helbidera zein Facebook kontura bidali behar da mezua, edota Ekilore dendatik pasa.

FUTBOLA

Otsailean hasiko dituzte San Martin futbol zelaiko obrak

Aldagela eta bulego berriak jarriko dituzte. **Aiaraldea.eus**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Hemendik hiru astera hasiko dira San Martin futbol zelaiko obrak. Hala jakinarazi du Jon Ander Altube alkateordeak. 258.000 euro baliatuko dituzte guztira kirol azpiegituran hainbat lan gauzatzeko. Alde batetik, 2 eta 4 zenbakidun aldagelak berrituko dituzte; eta bulegoak eraikiko dituzte bertan aritzen diren 2 klubentzat, CD Laudio eta Altzarraterentzat. 46.710 euro bideratuko dituzte lan horiek egitera.

Horrez gain, bost aldagela berri jarriko dituzte, 160.000 euroko diru-partida erabilita. Aurre-fabrikatutako moduluak izango dira. "Kontratazio mahaia egin dugu dagoeneko eta lau enpresa aurkeztu dira", jakinarazi du Altubek.

Modulu horiek jarri baino lehen, baina, egokitze-obra gauzatu beharko dute tokia atontzeko. Laumora Construccionesi esleitu dizkiote moldaketa lan horiek, 50.847,04 euroren truke. Alkateordeak nabarmendu du egingo diren obra guztiak futbol-zelaia erabiltzen duten bi klubekin adostuak izan direla.

TXIRRINDULARITZA

Luisa Ibarrola txapeldun berriro Espainiako Sub-23 Ziklo-kros txapelketan

Testua
Aitor Aspuru Saez

Urtarrilaren 13an jokatu zen Espainiako Ziklo-kros Txapelketa Pontevedran. Kategoria guztiko kirolariak lehiatu ziren aldi berean eta Luisa Ibarrola hirugarrena izan zen. Emaitza horrek balio izan zion Sub-23 kategorian nagusitzeko eta txapelduna izateko. Paula Diaz eta Sofia Rodriguez izan ziren bigarrena eta hirugarrena, hurrenez hurren.

Ez da saratxoarrak norgehiagoka hori irabazten duen lehen aldia izan. Izan ere, iaz Legazpin ere irabazi zuen Espainiako Ziklo-kros txapelketa eta kadeteen artean ere onena izan da.

Manolo Hidalgo bigarren pisu jaurtiketaren Euskadiko Txapelketan

Garaipen berria erdietsi du Manolo Hidalgo pisu jaurtitzaile amurrioarrak. Bigarren postua lortu du Euskadiko Txapelketan, Master 55 kategorian. Irailean 18. postuan geratu zen Munduko Txapelketan, kategoria berean. Erronka ugari ditu kirolari amurrioarrak aurten. Espainiako Txapelketan arituko da besteak beste. Gainera, hemendik bost hilabetera kategoriaz aldatuko da.

ATLETISMOA

Eztizen Etxebarria aiaraldearra da Arabako Kros Txapeldun berria

Testua
Aitor Aspuru Saez

Eztizen Etxebarria podiumean.

Eztizen Etxebarria aiaraldearrak eskuratu zuen atzo Arabako Kros Txapelketa Araiako zelaietan. 6.000 metroko ibilbidea bete behar izan zuen lasterkariak saria irabazteko, eta oso pozik dagoela adierazi du.

Izan ere, kirolariak ez zuen, inondik inora, garaipena espero: "Astean zehar gaixorik egon nintzen, goragaleak eta tripako minak jota".

Kategoria absolutuko Arabako txapeldun berriaren atzetik bere taldeko -Alimco Running Fiz- bi kide sartu ziren helmugara: Pilar Moran eta Maialen Loyo. Hirurak igo ziren elkarrekin podiumera.

Aiaraldeko kirolari gehiagok parte hartu zuten atzoko proban. Horietako batzuk, gainera, ez ziren esku hutsik itzuli. Hainbat domina eskuratu zituzten Atletismo Laudio eta Oinkariak klubetako korrikalariek.

Herriko plaza

Xare

Zorionak gure etxeko perrexilari!!! Bi urtetxu!! Mosu handi bet etxekoen partez!!

Etxekoak

Edorta

Zorionak Edorta!!!!!! Aita eta amaren partez. Asko maite zaitugu!

Aita eta ama

Garazi

Zorionak potxola! Askorentzat ez bada ere, guretzat beti gazte! Jarraitu dezagun elkarrekin urteak betetzen. Muxu handi 1!

Lagunak

BIDALI ZURE ZORION AGURRA!

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. Otsailaren 6an argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.

Denborapasak



❖ Kale artista amurrioarra

ERRAZA

	6				2		3	4
2	7				4			
	3				6			
8				5		4	2	3
3	2	5					8	7
7	4							6
6	8		9		7		4	5
		7	3		5	6		8
9	5	3		6			7	

	7		2					
4			3	5				1
				6			9	
7	9			4				2
5	6		7				4	9
				9	2	1		
6	5							
2	3		5	8		9		
8		4					5	6

ZAILA

		9	5			8		
7	2		8					6
		6			3	5		
			4				8	2
				5			7	
			3		2	4		
		4						
	9		6	2			5	
				8	4	6		

			5			2	8	
7	4							
6								
			3		2		5	
1								4
			8					
	2					3		
				6				7
				1				

DENBORAPASEN SOLUZIOAK

Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak webgunean ikusgai: http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak

Lan-eskaintzak

- **AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEKO KUDEATZAILEA (Laudio)**
- **SISTEMA ADMINISTRARIA (Laudio)**
- **ELEKTRIKARIA (Laudio)**
- **CNC LANGILEA (Amurrio)**
- **ZERBITZARIA (Laudio)**
- **ERAIKUNTZA LANGILEA (Laudio)**
- **ADMINISTRARIA (Amurrio)**
- **ZAINDARIA (Amurrio)**
- **INKESTATZAILEA (Laudio)**
- **UR IRAKURGAILEUN INSPEKTOREA (Laudio)**
- **EREMU NATURALEN MANTENURAKO LANGILEA (Laudio)**
- **EREMU NATURALEN MANTENURAKO LANGILEBURUA (Laudio)**

LAN-ESKAINTZA GEHIAGO AIARALDEA.EUS ATARIAN

Zozketa

Eñaut Elorrieta & Kaabestri String Ensembleren **kontzerturako sarrerak**

Emanaldia urtarrilaren 26an izango da, 20:00etan Amurrio Antzokian.

Parte hartzeko sartu www.aiaraldea.eus en
Zozketa data: urtarrilak 25, 12:00etan.

Aiaraldea txiki

Emaitzak





Han eta hemen

Begiratu ongi bi irudi hauei. Badira zortzi gauza bi eszenetan ageri direnak. Ikusten al dituzu?

❶

❷

❸

❹

❺

❻

❼

Itzala

Zein da korrika ihesi doan horren itzal zuzena?

Kontra

Aiaraldetik mundura

David Fernandez

Beñat Urquijo Cela

JAIOTERRIA
LAUDIO (1982)

BIZILEKUA
LUXEMBURGO

BIDAIAREN XEDEA
LANAK

“Luxemburgon oso zaila da anonimoa izatea, eta are gehiago nire lanbidean”

Luxemburgon zaude bizitzen. Zer dela eta?

2013. urtean Laudion lan egiten ari nintzen Guardianen eta aukera izan nuen Luxemburgora etortzeko giza baliabide departamentu bat zerotik sortzeko enpresak hemen zeukan fabrika batean. Aste bat pasa nuen hemen eta erronka onartu nuen.

Zure antzeko egoeran dagoen hemengo jende gehiago dago Luxemburgon?

Oso espaniar gutxi daude Luxemburgon eta euskaldunak are gutxiago.

Aldaketa asko sumatzen dituzu Luxemburgoko lan baldintzen eta hemengoen artean?

Soldatak askoz altuagoak dira, baina bizitzaren kostua ere altuagoa da.

Nolakoa da zure eguneroko bizitza bertan?

Bizitza gutxi egiten du jendeak kalean eta harremanak hotzagoak dira. Oso ezberdina da hemengo bizimodua Aiaraldean dagoenarekin alderatuta. Argi ordu gutxiago daude hemen Euskal Herriarekin konparatzen badugu.

Kalean bizitza gutxiago dagoela aipatu duzu. Nola igarotzen du orduan jendeak aisialdia?

Normalean neguan jendeak denbora etxean pasatzen du eta aktibitate sozialak etxean egiten dira.

Frantsesa, alemana eta luxemburgera dira hizkuntza ofizialak bertan. Nolakoa da hiru hizkuntza horien arteko elkarbizitza? Zu nola moldatzen zara egunerokoan hitz egiteko?

Frantsesa hona etortzean ikasi nuen, alemaniera jada hitz egiten nuen gutxi gorabehera eta luxemburgera ulertu dezaket baina ez dut hitzegiten. Mundu guztiko jendea dago hemen eta egunero hizkuntza asko entzun daitezke. Beti aurkitzen dugu beste pertsonarekin partekatzen dugun zerbait.

Oso herrialde txikia da Luxemburgo. Zertan nabaritzen da hori egunerokoan?

Egunero ikusten dut ezagutzen dudan jendea leku guztietan, oso zaila da anonimoa izatea eta oraindik zailagoa nire lanbidean. Gobernua hain da txikia ezen Lehen Ministroarekin laupabost bileratan egon bainaiz.

Argi ordu gutxiago egoteak zer nolako eragina du eguneroko bizitzan?

Eguzkia dagoenean jende guztia kalera ateratzen da edozer egiteko.

Baduzu harremanik bertan bizi den Euskal Herriko jendearekin?

Harreman gehiago daukat Luxemburgoko jendearekin. Ez dakit euskal komunitaterik dagoen ere.

Baduzu itzultzeko intentziorik edo momentuz bertan geratzeko asmoa duzu?

Momentuz ez daukat presarik itzultzeko. Baina aukera ona aurkezten bada, zergatik ez?

LUXEMBURGO

DESKRIBAPENA
Frantzia, Alemania eta Belgika artean dagoen herrialde txikia da. Belgikako tribu bateko kideak izan ziren lurraldeko lehen biztanleak. Alemaniak herrialdea okupatu zuen bi mundu gerretan. Egun, biztanleko Barne Produktu Gordin gehien duen herrialdea da.

AZALERA
2.586 kilometro koadro.

BIZTANLEAK
602.005 biztanle.

HIZKUNTZA
Frantsesa, alemana eta luxemburgera.

Argitaratzailea: Aiaraldea Kooperatiba Elkartea
Tirada: 10.000 ale.
Maiztasuna: Hamabostekaria
Lege gordailua: BI-1230-2013
Posta elektronikoa: egunkaria@aiaraldea.eus
agenda@aiaraldea.eus
agurrak@aiaraldea.eus
Publizitatea: publizitatea@komunika.eus
Tlfnoa: 688 62 53 94
Helbidea: Nerbioi Kalea 12, behea. Laudio. Araba. 01400
Telefonoak: 94 656 85 54/688 62 59 00
Web-gunea: www.aiaraldea.eus
ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

ESKER BEREZIAK BANATZAILE BOLUNTARIOEI:
Xabier Ugalde Gulias, Jabi Asurmendi Sainz, Unai Llano Anda, Eider Solatxi, Alberto Martinez Gutierrez-Barquin, Ali Orue Del Valle, Garrastatxu Landaluze Okeranza, Genma Corbella Eguilez, Unai Vicente Basterra, Estibaliz Bideguren Otaola, Aitor Fernandez de Pinedo, Endika Arribas Gulias eta Eunate Molinuevo Olabarria

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:

orozko · Urduña Orduña · Aiarako Udala · Arakaldo · Okondoko Udala · Laudio Udala Ayuntamiento de Llodio · Amurrio

Graf!k — Tellería 2, Laudio (Araba) 94 672 65 43// info@grafiksarea.com

ausolan

Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava

JEZ — Arantzar, z/g LAUDIO (Araba) 946 721 200 // infor@jez.es

Basalarrina Euskal Topagunea

Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco — Kultura eta Hizkuntza Politika Saila